

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

51. astea (2025eko abenduaren 15etik 21era)


Datuen arabera, litekeena da 50. astean gripearen epidemiaren gailurra izatea, eta aste honetan adierazle gehienek behera egin dute. Bronkiolitisaren tasak goranzko joerarekin jarraitzen du eta COVID-19aren tasa baxu mantendu da.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 528,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (432,4/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak eta bronkiolitisiaren tasak gora egin dute aste honetan. COVID-19aren tasa baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 61 lagin jagoleen % 60,7 baieztatu da, 23 gripe-birus, 7 ABS eta SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 23,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (22,5/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA eta bronkiolitis (< 2 urte)-tasak intentsitate maila baxuetan mantentzen dira, larrialdietako gripe-sindromea berriz intentsitate ertaineko mailara jaitsi da.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 909 gripe-birus, 280 ABS eta 13 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIaren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 528,8 kasukoa izan da (432,4/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 405,8/100.000 izan da Araban, 516,6/100.000 Bizkaian eta 605,1/100.000 Gipuzkoan.

AIaren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIaren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 4588,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 2321,6 eta 580,3 kasurekin, hurrenez hurren.

AIaren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuen (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 281,4 kasukoa izan da (266,7/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasak ESI guztietan igo dira ESI Tolosaldea izan ezik.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 51. astea	Tasa 50. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	432,6	310,8	1,39 (1,27-1,51)
Arabar Errioxako ESI	934,0	764,2	1,22 (0,92-1,61)
Barakaldo-Sestaoko ESI	503,4	360,5	1,39 (1,23-1,57)
Barrualde-Galdakaoko ESI	550,1	444,5	1,23 (1,15-1,32)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	526,4	443,2	1,18 (1,10-1,27)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	521,9	351,0	1,48 (1,33-1,65)
Uribeko ESI	419,8	309,9	1,35 (1,22-1,49)
Bidasoako ESI	598,6	562,6	1,06 (0,93-1,21)
Debararrenako ESI	605,9	544,6	1,11 (0,97-1,27)
Debagoienako ESI	479,0	465,1	1,03 (0,87-1,20)
Donostialdeako ESI	556,9	487,2	1,14 (1,07-1,21)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	738,6	621,6	1,18 (1,06-1,32)
Tolosaldeako ESI	640,9	659,4	0,97 (0,84-1,11)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 58,5 kasu 100.000 biztanleko balioraino igo da (54,5/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du eta 884,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (591,8 /100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 0,8 kasutan mantentzen da (0,7/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 61 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 60,7 baieztatu dira. 23 gripe-birus (12 A(H3) eta 11 A(H1)), 7 ABS eta SARS-CoV-2 bat atzeman dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna altu mantentzen da % 37,7an (% 42,0 aurreko astean) eta ABSren positibotasuna % 11,5raino igo da (% 8,0 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 1,6koa izan da (% 0,0 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	51. astea		50. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	23	37,7	21	42,0	288	38,2
SARS-CoV-2	1	1,6	0	0,0	10	1,3
ABS	7	11,5	4	8,0	29	3,9
Metaneumobirus	1	0,0	1	2,0	1	0,1
Parainfluenza	0	0,0	2	4,0	17	2,3
Adenobirus	0	0,0	1	2,0	5	0,7
Errinobirus	5	8,2	3	6,0	157	20,8
Urtaroko CoV	2	3,3	3	6,0	22	2,9
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	5	0,7

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratortzen direnak. AIAL tasa 23,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (22,5/100.000 aurreko astean), 22,4/100.000 gizonetan eta 24,6/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 123,4 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 70,3 eta 33,4 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 7,4koa izan da 100.000 biztanleko (8,6/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 2,0koa 100.000 biztanleko (1,3/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,2 kasukoa 100.000 biztanleko (0,1/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 1,0koa izan da (% 0,7 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 38,3era jaitsi da aste honetan (% 46,5 aurreko astean), eta ABSrena % 18,3raino igo da ere (% 13,9 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	51. astea		50. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	397	1,0	402	0,7	3234	2,7
Influenza	444	38,3	409	46,5	3041	33,5
ABS	387	18,3	381	13,9	2745	8,6

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIAren zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gaingitu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromean, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gainditu zela. Aste honetan, intentsitate ertaineko mailara jaitsi da.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gainditu zen eta aste honetan intentsitate baxuko mailan mantentzen da.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 909 gripe-birus, 280 ABS eta 13 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 909 gripe-birusetatik, 481 A motakoak izan dira, 282 A(H3), 143 A(H1)pdm09 eta B motako hiru. 2025/40 astetik 5823 detekzio erregistratu dira, 5808 (% 99,7) A motakoak eta 15 (% 0,3) B motakoak. Azpitipatutako A motako 2824 birusetatik, 1877 (% 62,9) A(H3) eta 1107 (% 37,1) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko abenduak 26

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza